



2010eko gizarte-balantzea

Agintzari

Aurkibidea

1 Aurkezpena 4. orrialdea

2 Nortasuna
Gizarte-balioa sortzen duten
pertsona konprometituak 6. orrialdea

3 Antolakuntza eta zerbitzuak 11. orrialdea

4 Datu ekonomikoak 21. orrialdea

5 Agintzariko pertsonak 27. orrialdea

6 Erakundeak eta agenteak 32. orrialdea





Aurkezpena

ARTEZKARITZA-KONTSEILUAREN GIZARTE-BALANTZERAKO SARRERA

Kooperatiba gisa sortu ginenetik (edo gutxienez erakunde gisa eratu ginenetik), garenari eta gizarte honi eskaintzen diogunaren balioari buruzko informazioa eman beharra sentitu dugu.

Gure gizarte-xedeak definitzen gaitu, hots, zailtasun-egoeran dauden pertsonen eta taldeen bizi-kalitatea hobetzea; hori goraipamen handiak eginez eskertu digute eta “Interes Publikotzat” hartu gaituzte. Hori modu berezian egitea erabaki genuen gainera: enpresa gisa eta modu profesionalizatuan; horretarako, bazkideztan lan egitea eta ahalik eta kudeaketa demokratikoena egitea erabaki genuen (horrela izatea nahi izan dugu), artatzen ditugun pertsonengan eta Agintzari osatzen dugun pertsonengan oinarrituta.

Gure balioetako bat gizarte-ekonomia bat sortu eta eraikitzea izan da eta da (gaur egun oso landua dagoen eta eredu asko dituen terminoa), eta horregatik, “gizarte-ekimena” terminoa gaineratu genuen gure nortasunaren ezaugarri gisa. Baita lankidetzaren munduko aitorten bereizgarri hori garatu eta sustatuz ere. Gaur egun, termino horrek esanahi arautzailea/legegilea baino are gehiago du eta gizarte-intereseko jarduera-eremu zabalago bat izendatzen du, gizarte-konpromisorako eremu bat.

Bide horretan, asko izan dira zer garen eta gauzak nola egiten ditugun komunikatu eta jakinarazteko erabili ditugun moduak. Aurkezten dugun Gizarte-balantze

hau zentzu horretan aurrera egiten jarraitzeko apustu sendoa da. Gardentasunerako (kontzeptu ekonomikoa baino harantzago doa, horiek ere Balantzean jasotzen diren arren) eta autoebaluaziorako ariketa bat ere bada, erakunde gisa hobetzen jarraitzeko. Horretarako, adierazle batzuetara jo dugu, horiek guztiak batera hartuta, baliagarria eta guztiontzat interesgarria den izateko eta jarduteko modu bat helarazten baitigute eta gizarte-eraikuntzan hazten jarraitzea eta helburuak gainditzen joatea eskatzen baitigute guri eta gure jarduera berean parte hartzen duten pertsona guztiei: erabiltzaile, bezero, hornitzaile, kolaboratzaile, erakundeetako agenteei eta abarrei.

Agintzarin oso pozik gaude dokumentu hau argitaratzeagatik. Beste Balantze askoren lehenengoa, ziur gaude.

Azkenik, lan hau garatzeko orduan beren ahalegin guztiak egin dituzten pertsonen zori ondu eta gure esker onak eman nahi dizkiegu.

Balantzearen irakurketa baliagarria eta interesgarria izatea espero dugu.

Besarkada handi bat.

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibako Artezkaritza Kontseilua.



AGINTZARIk 2010eko ekitaldiari dagokion Gizarte Balantzearen lehen memoria aurkeztu du. Txosten honen bidez kudeaketaren gardentasunarekiko gure konpromisoa berretsi eta gure kooperatibaren errealitatea partekatu nahi dugu kooperatibaren barruko nahiz kanpoko agenteekin eta, oro har, gizarte osoarekin, hura osatzen duten jarduera eta elementuei garrantzia emanez.

Xede horretarako sortu den proiektu-taldeak egin du ekarpen hori. Proiektua koordinatzeko orduan honako hauek hartu dugu parte: Alberto Ponti, Ramón Sáez, Aritz Contreras, Ana Verano, Eva de las Heras eta nik neuk, Maite Callejak. Oso garrantzitsuak izan dira, halaber, datuen bilketan eta horiek planteatutako adierazleetara itzultzen parte hartu duten pertsonen ekarpenak. Aurrez finkatutako adierazleak eta informazioa nahikoa sakabanatuta zeudenez gero, Gizarte Balantzearen proiektua zalantza ugarirekin hasi genuen, baina pixkanaka aurrera egiten eta edukia eta forma hartzen joan da, gaur zuekin partekatu eta aztertu nahi dugun azken emaitza hau lortu arte.

Dokumentuaren edukia bost ataletan antolatua dagoela esan behar dugu; gure nortasunaren berezko elementuak aipatzen dira lehenik eta behin, hau da, gure historia, misioa, balioa eta garaian garaiko helburu estrategikoak.

Gure erakundearen deskribapena eta haren nolakotasunari buruzko aipamenak ere gaineratu dira, eta baita kudeatzen ditugun zerbitzuak ere. Eduki klasikoagoen artean, 2010eko datu ekonomikoak jaso dira, betiere beste parametro analitiko eta balio erantsiko parametro batzuk azpimarratuz.

Azken bi kapituluetan Agintzari taldea osatzen duten pertsonen eta gure harreman-mundua osatzen duten erakunde eta agenteen aurkezpena eta ezaugarriak adierazten dira.

Datozen ekitaldietan Gizarte Balantze honetan aurrera egiten, hobetzen eta sistematizatzen jarraitzeko, haren orrialde eta grafikoak aztertzeraz gonbidatzen zaituztegu.

Bilbon, 2011ko uztailaren 15ean.



**Nortasuna
Gizarte-balioa
sortzen duten
pertsonek
konprometituak**

Gure misioa gizarte-lankidetzarekin
**konprometituta
dauden pertsonetan
oinarritutako**
proiektu bat burutzea da.



Historia

AGINTZARI 1977, urteaz geroztik gizarte-bazterketaren arloan ari da lanean. 1983. urtean Agintzari Elkartearen izena hartu eta beharrezko nortasun juridikoa bereganatu zuen. Era askotako jarduerak gauzatu izan ditu; gizarte salaketa eta ikerketa lanak egin eta arriskuan eta babesik gabe dauden adin txikiko eta gazteei arreta eskaintzen die babesetxeak sustatuz eta kudeatuz eta Komunitatean Esku Hartzeko Taldeen bitartez, Familia eta Kale Heziketarako Gizarte Hezkuntza egitarauak garatuz, batez ere.

1991. urtean Kooperatiba Elkarte gisa eratu zen; enpresa-modelo horri esker gizarte eta lan arloan duen helburuari tinko heldu eta kudeaketa demokratikoa ahalbidetu ahal izan du, betiere enpleguari dagokion maila duina eman nahirik eta profesionaltasuna, ekintza sozialaren kalitatea eta gizartearekiko konpromisoa bultzatuz, batez ere ahultasuna duten edo gizarte-bazterketa jasaten duen pertsonen dagokienez.

Printzipio eta balore horiek 2000. urtean berretsi zituen berriro, urte horretan Gizarte Ekimenerako Kooperatiba bihurtu baitzen, hau da, irabazi-asmorik gabeko erakundea. Urte hartan bertan, Eusko Jaurlaritzak Erabilgarritasun Publikoko erakunde izendatu zuen **AGINTZARI**.



Misioa

AGINTZARI gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, gizartearekiko konprometituta dagoena eta premia sozialak betetzea eta balio soziala sortzea helburu duena. Komunitatearen garapenean eta, zehazki, Gizartegintzan diharduen gizarte-enpresa bat garenez, proposamen berritzaileak abiarazten ditugu, eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen ditugu, zailtasun-egoeran dauden pertsona eta taldeen premia sozialak asetzeko.

Gure misioa gizarte-lankidetzarekin konprometituta dauden pertsonetan oinarritutako proiektu bat burutzea da. Pertsona horiek elkarrekin lan egiten dute etengabe, pertsonak, bezeroak, lankideak eta gure ingurunea asebetetzeko, honako helburu hauekin: zailtasun-egoeran dauden pertsona eta taldeen bizi-kalitatea hobetzea (gure jarduera haiei dago zuzenduta); Gizarte Ongizatearen eredu publikoa legitimatzen laguntzea; eta gizarte justu, solidario, anitz eta kohesionatuagoa eraikitzea, lankidetzaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren bidez.

Gure lankidetzaproiektua pertsonetan dago oinarrituta, hainbat arrazoiengatik. Agintzariaren antolamenduaren oinarriak pertsonen autokudeaketa, partaidetza, eskarmentua eta lidergo partekatua dira. Pertsona horiek Bikaintasuna lortu nahi dute premiak etengabe asetzearen bidez, bai gure kooperatibako kideenak, eta bai gure zerbitzuen zuzeneko hartzaile, bezero eta kanpoko lankideenak nahiz gure jarduera garatzen den komunitatearenak.

Gure kudeaketaren gakoa hau da: Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba Elkarteak osatzen duten pertsona guztien artean adostutako Misioa, Ikuspegia eta Balio Komunekin kontsekuenteak izatea.

Balioak

Gure xede eta ikuspegiaren oinarriak, besteak beste, honako balio eta printzipioak dira, gure izaera eta jokabidea zuzentzen baitute:

- Gizarte-erantzukizuna funtsezko baliotzat hartzea. Erantzukizun hori **premia sozialak** dituzten pertsonen konpromisoan islatzen da, eta gure bezero, bazkide eta lankideen gogobetetasunean.
- Erakunde publikoekin eta sektoreko gizarte-eragileekin **lan egiteko** apustu irmoa.
- **Balio etikoak** gure egitea, adibidez Konpromisoa, Erantzukizun Partekatua, Ekitatea eta Elkartasuna, Onestasuna eta Errespetua, eta baita Kode Etiko Profesionaletako balioak ere, aldi berean bitartekoak eta helburuak direlako, bai gure barne-jardueretan eta bai kanpokoetan.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasunaren** printzipioa onartzea eta gure egitea, eta sexuagatiko edozein diskriminazio-mota berariaz debekatzea.
- Kudeaketan, informazioan eta komunikazioan, **Gardentasuna** zor den obedientzia gisa ulertzea, bai gure barne-jardueretan eta bai kanpokoetan.

- Kooperatibako **funtsezko gaitasunak**, antolamenduzkoak eta gizabanakoarenak sustatzea eta proaktiboki txertatzea, gaitasun profesional handiena bilatuz beti.
- Ulertzea balio horiek bizirik jarraitzeko zabaldu egin behar direla, eta beraz, lankidetzan elkartasun-espirtua erabiltzea, **kooperatiba-mugimenduaren** berezko balioetan (Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak zehaztuak) oinarritutako ekarpen bereizgarri gisa.
- Eta bereziki eta modu erabakigarrian, sistematikoki **errentagarritasun soziala eta sozietarioa bilatzea, eta baita ekonomikoa ere**, alegia, jardueratik ateratako etekinak helburu sozialean berriro inbertitzea (irabazi-asmorik gabe). Era berean, pertsonak eta enplegua sustatzea elkarlanaren bidez (sozietarioa), eta kapital soziala eta harremanezkoa sortzea, kohesio eta justizia soziala bultzatzeko ekarpen gisa.

Erronka estrategikoak - 2009-2012

- 
- Esku-hartze komunitarioko linea finkatzea, eta familia-harrera eta adopzioan, indarkerian eta harreman-gatazketan esku hartzeko lineak sustatzea, kooperatibaren berezko balio erantsia ekarriz eta apustu irmoa eginez berrikuntza eta lehiakortasunaren alde..
 - Kudeaketa-eredua eguneratzea, Agintzariaren xede eta balioekin, arlo publiko eta pribatuko erronka berriekin, eta kudeaketaren arloko lidergo eta erantzukizun partekatuarekin bat etorritz.
 - Kooperatibako pertsonen inplikazioa eta gogobetetasuna handitzea, eremu soziorabolean prozesuen araberako kudeaketa ezarriz, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatuz eta kooperatibaren prozesuetan partaidetza areagotuz.



Antolakuntza eta zerbitzuak

Artatutako pertsona kopurua 15.328

Haur eta gazteak 5.032

Helduak eta familiak 8.455

Profesional parte-hartzaileak 1.841

Lurraldean duen presentzia Bizkaiko 23 udalerrri eta
mankomunitate, EAE, Nafarroa
eta beste erkidego batzuk.

Ilidoaren zuzendariak 5

Kooperatibako
profesionalak 225 profesional.
% 82 emakumeak.



● ARTEZKARITZA-KONTSEILUA

- Lehendakaria::

Lander Arteta.

Etxebarriko Gizarte eta Hezkuntzan Esku hartzeko Lantaldeko (GHEL) arduraduna. Lehendakaria 2007tik.

- Lehendakariordea:

Elena García.

Leioako GHELko arduraduna.

- Idazkaria:

Julia López.

Administrazio-arduraduna.

- Bokalak:

Aritz Contreras.

Teknologia eta Komunikazioko teknikaria.

Luis Ignacio Galindez.

Bilboko Uribarri-Zurbarango GHELko arduraduna.

Iñigo Riaño.

Bilboko Iralako GHELko gizarte-hezitzailea.

Nerea Villanueva.

Psikologoa.

Ezkerraldeko talde psikosozialaren koordinatzailea.

● ZAIINTZA-BATZORDEA

- Lehendakaria:

Blanca Tejera.

Lan-teknikaria.

- Batzordekideak:

Pablo Gutierrez (*Busturialdeko GHEL*)

Cristina Sanz (*Bilboko Uribarri-Zurbarango GHEL*)

● ZUZENDARITZA NAGUSIA

- Zuzendaritza nagusia:

Alberto Ponti y José Aneiros.

● ZUZENDARITZA-KONTSEILUA

- Esku-hartze Komunitarioko lldoaren zuzendariak:

Itziar Etcheverry, *Ezkerraldeko eremuan;*

Angel Sainz, *Bilbo Metropolitarrako eremuan;*

Ainhua Solozabal *Durangaldean.*

- Harrera eta Adopzio lldoaren zuzendaria:

Alberto Rodriguez.

- Indarkeria eta Harreman Gatazkatsuetan Esku hartzeko lldoaren zuzendaria:

Josu Gago

- Berrikuntzako zuzendaria:

Maite Calleja

- Administrazio eta ekonomia eta finantza arloko zuzendaria:

Ramón Sáez.

● LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO BATZORDEA

- Prebentziorako arduraduna:

Blanca Tejera

Lan-teknikaria.

- Batzordekideak:

Idoia Arana (*Iralako GHEL*);

Josune Llorente (*Basurtuko GHEL*);

Marimar Cimadevilla (*San Bizenteko GHEL*).

- Artezkaritza Kontseiluko erreferentea:

Aritz Contreras

- Zuzendaritzako erreferentea:

Ramón Sáez

● BERDINTASUN-BATZORDEA

- Berdintasuneko arduraduna:

Marian Cuadrado (*Leioako GHEL*);

Teresa Aguirre (*SATEVI*)

- Batzordekideak:

Teresa Aguirre (*SATEVI*);

Estela Villamayor (*Durangoko GHEL*);

Libe Corada (*Urduñako GHEL*);

Arantza Urraka (*Hiri-inguruko GHEL*);

Arantza Nuñez (*SATEVI*);

Shaila Fernández (*Santurtziko GHEL*);

Idoia Gonzalez (*Basurtuko GHEL*).

- Batzordearen Laguntza Teknikoa:

Cristina Ojanguren.

- Artezkaritza Kontseiluko erreferentea:

Asier Blanco, Luigi Galindez.

- Zuzendaritzako erreferentea:

José Aneiros, y Alberto Ponti.

● EUSKARA-BATZORDEA

- Batzordearen arduraduna:

Ainhua Solozabal.

- Batzordekideak

Carmen Alonso (*Administrazio Zerbitzu Nagusiak*);

Josune Polancos (*Bidegorriko GHEL*);


Ohiane Cabello (*Gizarte eta Hezkuntzako Etxeko*

Programa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat);

Oiana Eizaguirre (*Lea-Ibarrako GHEL*);

Marta Gómez (*Santutxuko GHEL*).

Agintzariren 2010eko Organigrama




Kudeatutako zerbitzuak

Kooperatibak gizarte eta hezkuntzaren, arreta psikosozialaren eta aholkularitza eta prestakuntzaren arloko zerbitzuak kudeatzen ditu haurren eta familien esparruan. Zerbitzu horien kudeaketa hiru jarduera-ildotan antolatzen da:


- Esku-hartze Komunitarioko Ildoa (EKI)
- Harrera eta Adopzio Ildoa (HAI)
- Indarkeria eta Harreman Gatazkatsuetan Esku hartzeko Ildoa (IEI)

2010ean, kudeatutako zerbitzuek 15.000 pertsonari baino gehiagori eskaini zieten arreta, horietatik % 33 haur eta gazteak, % 55 helduak eta familiak, eta % 12 profesionalak.



Artatutako biztanleak

- Haur eta gazteak
- Helduak eta familiak
- Profesionalak



Artatutako biztanleak eta programak

- Haur eta gazteak
- Helduak eta familiak
- Profesionalak

Artatutako biztanleak, Ildoaren arabera	GUZTIRA	EKI	HAI	LAA	% GUZTIRA	% EKI	% IEI	% HAI
Haur eta gazteak	5.032	4.021	514	497	% 32,83	%45,41	%14,19	% 17,43
Helduak eta familiak	8.455	4.651	2.394	1.410	% 55,16	% 52,53	% 66,10	% 49,44
Profesionalak	1.841	182	714	945	% 12,01	% 2,06	% 19,71	% 33,13
Guztira	15.328	8.854	3.622	2.852	% 100,00	% 57,76	% 23,63	% 18,61

Zerbitzuen tipologiaren arabera, artatutako biztanleen % 28k gizarte eta hezkuntzaren arloko zerbitzuetara jo zuten, % 49k zerbitzu psikosozialetara eta % 23k prestakuntza eta aholkularitzara.

Antolakuntza eta zerbitzuak

Artatutako pertsona kopurua	8.854
Haur eta gazteak	4.021
Helduak eta familiak	4.651
Profesional parte-hartzaileak	182
Lurraldean duen presentzia	Bizkaiko 23 udalerri eta mankomunitate. EAE, Nafarroa eta beste erkidego batzuk.
Ildoaren zuzendariak	3
Ildoko profesionalak	157 profesional. % 83 emakumeak.

2010eko Esku-hartze Komunitarioko Ildoa

Esku-hartze Komunitarioko ildoa Bizkaiko 23 udalerrian eta mankomunitatetan lan egiten duten 157 profesionalen osaturik dago. Ildo horrek gizarte-zerbitzuen zorroa osatzen duten titulartasun publikoko zerbitzu psikosozialak eta gizarte eta hezkuntzaren arloko zerbitzuak kudeatzen ditu, Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea kontuan izanik. Era berean, prebentzio-programak kudeatzen ditu eskolaren eta familiaren esparruan, eta baita profesionalen prestakuntzarako eta aholkularitzarako proiektuak ere. Kooperatibak urte asko daramatza lurraldean gizarte-zerbitzuekin batera lan egiten, laurogeita hamargarren hamarkadatik, hain zuzen ere. 2010ean, kooperatibaren zerbitzuek zortzi mila pertsona baino gehiago artatu dituzte haur eta gazte, heldu eta familia, eta profesionalen artean.

Zuzendari Taldea

Ainhoa Solozabal
Angel Sainz
Itziar Etcheverry

I+G+b taldea

Noelia Moyano
Cristina Ojanguren
Blanca Angulo

Ildo Komunitarioan kudeatutako zerbitzuak

Zerbitzuaren izena

Gizartearen eta hezkuntzaren arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua

Udal-titulartasuna, Mankomunitatea

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Zerbitzuaren izena

Erabiltzaile eta profesionalentzako prestakuntza-programak

Titulartasuna Ekimen publiko, pribatu eta sozialeko programak

Zerbitzu-mota Sustapen publiko, gizarte-ekimen eta ekimen pribatuko zerbitzuak

Antolakuntza eta zerbitzuak

2010eko gizarte-balantzea
Agintzari SCIS

Zerbitzua/Programa

Urtea

Arduraduna

Jardunaldiak

GHEL	Leioa	1991	Elena García	7
GHEZ-PEZ	Getxo	1992	Irene González	7
GHEL	Etxebarri	1992	Lander Arteta	2
Prestakuntza	Lurraldea	1992	Yolanda Martín	2,5
HPSIT	Busturialdea	1994	Maite Alvarez	3,5
GHEL	Ermua	1994	Amagoia Zabala	3
GHEL	Galdakao	1996	Agurtzane Larrabe	3'75
GHEL	Ugao-Miravalles	1996	Pilar Arevalo	1
GHEL eta Eskola-laguntza	Basauri	1997	Gotzone Gárate	6
GHEL	Urduña	1997	Ane Egiluz	2
LAZ	Basauri	1997	Iratxe Apraiz	1
GHEL	Alonsotegi	1997	Aintzane Artegabeitia	1
GHEL	Zierbena	1997	Aroa Reguero	1,5
GHEL - Eskola-laguntza	Bermeo	1997	Idurre Bustinza	3,7
LAZ	Bermeo	1997	Nagore Gonzalez	hilean 18 ordu
GHEL eta LAZ	Durango	1997	Leire Hernández	5,3
GHEL	Lea Artibai	1997	Maite Churruca	2
GHEL	Bilbo-Irala	1999	Silvia Rodriguez	6
GHEL	Bilbo-Uribarri	1999	Luigi Galindez	6
GHEL	Berriz	1999	Beatriz Avila	2
GHEL	Bilbo-Indautxu	2001	Beatriz Varas	4
GHEL	Bilbo-Basurtu	2001	Estibaliz Pozo	5
LTZ	Bilbo	2001	Luis Pérez	8,75
GHEL	Barak-Bidegorri	1996	Marina Zumaquero	7
GHEL	Barak-San Bizente	2002	Jacqueline Refoyo	7
GHEL	Barak- Hiri-ingurunea	2002	Ana Mª Hurtado	12
PAIZ	Barakaldo	2002	Marta Aja	3
Familientzako Aholkularitza Programa	Santurtzi	2002	Nerea Villanueva	1/3
LAZ	Postugalete	2002	Nerea Villanueva	1
GHEL	Enkarterri	2003	Rosa Isabel Garai	1
LAZ	Muskiz	2004	Nerea Villanueva	0,5
LAZ	Zierbena	2005	Nerea Villanueva	1/8
GHEL	Lea Ibarra	2006	Oihana Eizagirre	1
GHEL	Bilbo-Santutxu	2007	Amaia Garay	6
LAZ	Leioa	2009	Olaia Martinez	1
GHEL	Santurtzi	2009	Raquel Gárate	5

GHEL (Leioa)

GHEZ-PEZ (Getxo)

GHEL (Etxebarri)

Prestakuntza (Lurraldea)

HPSIT (Busturialdea)

GHEL (Ermua)

GHEL (Ugao-Miravalles)

GHEL (Galdakao)

GHEL (Barakaldo)

GHEL - Eskola-laguntza (Bidegorri)

GHEL - Eskola-laguntza (Basauri)

GHEL (Urduña)

GHEL (Alonsotegi)

GHEL (Zierbena)

LAZ (Lea Ibarra)

LAZ (Bermeo)

GHEL eta LAZ (Durango)

GHEL (Bilbo-Irala)

GHEL (Bilbo-Uribarri)

GHEL (Berriz)

GHEL (Bilbo-Indautxu)

LTZ (Bilbo)

GHEL (Barakaldo-San Bizente)

PAIZ (Barakaldo)

LAZ (Santurtzi)

LAZ (Portugalete)

GHEL (Enkarterri)

LAZ (Muskiz)

LAZ (Zierbena)

GHEL (Lea Artibai)

GHEL (Bilbo-Santutxu)

LAZ (Leioa)

1991

1992

1994

1996

1997

1999

2001

2002

2003

2004

2005

2006

2007

2009

Antolakuntza eta zerbitzuak

Artatutako pertsona kopurua	2.852
Haur eta gazteak	497
Helduak eta familiak	1.410
Profesional parte-hartzaileak	945
Lurraldean duen presentzia	Zerbitzuak eta lankidetzak EAEn, Nafarroan eta beste erkidego batzuetan.
Ildoaren zuzendariak	1
Ildoko profesionalak	25 profesional.

Harrera eta Adopzio Ildoa

Harrera eta Adopzio Ildoa Bizkaiko lurralde historikoko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste erkidego batzuetako zerbitzu desberdinetan lan egiten duten 25 profesionalen osaturik dago. Ildo honek haurrak babes- teko titulartasun publikoko programak kudeatzen ditu harrera eta adopzioaren esparruan, eta Agintzarik sustatutako Arlobi-Adoptia zerbitzuaren bitartez, arre- ta psikosozial, aholkularitza eta prestakuntzarako zerbit- zuak kudeatzen ditu esparru berean lan egiten duten erakundeentzat, profesionalentzat eta familia eta pertsonentzat.

Arestian aipatutako zerbitzu-eskaintza horren bitartez, ildo honek 2.852 pertsona artatu ditu guztira, horietatik 497 haurrak eta gazteak, 1.410 helduak eta familiak, eta 945 2010eko zerbitzu-eskaintzan parte hartu duten profesionalak.

Ildoaren zuzendaria

I+G+b eta Zuzendari Taldea

Alberto Rodriguez
Javier Múgica
Arantza Llona
Carmen Velasco
Begoña Guijarro
Soraia Lozano
Asun Valenzuela

Harrera eta Adopzio Ildoan kudeatutako zerbitzuak

Zerbitzuaren izena

Familien Harrera Sustatzeko FHST programa

Titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Zerbitzuaren izena

Familia Ugarietan Familien Harrera Sustatzeko Programa

Titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Zerbitzuaren izena

Bizkaian Adopzioa Sustatzeko Programa

Titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Zerbitzuaren izena

EAEko haur adoptatuen eremuan garapenerako eta berrikuntzarako zerbitzua

Titulartasuna Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Zerbitzu-mota Zerbitzu publikoa

Zerbitzuaren izena

Arlobi-Adoptia


Titulartasuna Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba

Zerbitzu-mota Zerbitzu pribatuak eta gizarte-ekimenekoak

Harreran eta adopzioan arreta psikosoziala eta aholkularitza eskaintzen duen zerbitzu espezializatua

Adoberri
Haur adoptatuen arloan garapena eta berrikuntza bultzatzeko zerbitzua
Servicio para el desarrollo e innovación en el ámbito de la infancia adoptada

arlobi adoptia



Antolakuntza eta zerbitzuak

Artatutako pertsona kopurua	3.622
Haur eta gazteak	514
Helduak eta familiak	2.394
Profesional parte-hartzaileak	714
Lurraldean duen presentzia	Euskal Autonomia Erkidegoa
Ildoaren zuzendariak	1
Ildoko profesionalak	17

Indarkeria eta Harreman Gatazkatsuetan Esku hartzeko Ildoa

Indarkeria eta harreman gatazkatsuetan esku hartzeko ildoak 17 profesionalen osatua dago eta horiek ildoak osatzen duten bost zerbitzuetan egiten dute lan. Kudeatutako zerbitzuak titulartasun publikokoak dira eta gehienak Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurkitu ditzakegu.

Kudeatutako zerbitzuen izaera desberdina da horien arreta-modalitatearen arabera: on line eta telefono bidezko zerbitzuak; gizarte eta hezkuntzaren arloko zerbitzuak, indarkeriaren biktimak diren emakumei harrera-zerbitzua eskainiz; azterketa psikologikoko zerbitzu espezializatuak familia barruko sexu-abusu eta babesgabetasuneko egoeretan; eta abar.

Datuen arabera, 3.622 pertsonak jaso dute zerbitzu hauen bitartez eskainitako arreta, horietatik 514 haur eta gazteak, 2.394 helduak eta familiak, eta 714 gurekin batera lan egin duten edo zerbitzu-motaren bat eskaini duten profesionalak.

Ildoaren zuzendaria I+G+b eta Zuzendari Taldea

Josu Gago
Jose Ramón Elizondo
Teresa Aguirre
Kepa Torrealdea
Iratxe Amantegi

Zerbitzuaren izena

SATEVI, Genero Indarkeriaren Biktimak diren Emakumei Laguntza Psikologikoa Emateko 900-840-111 Telefono Zerbitzua

Titulartasuna Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Zerbitzuaren izena

Zeuk esan, Nerabeei Orientatu eta Informatzeko 116111 Telefono Zerbitzua

Titulartasuna Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Zerbitzu-mota Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Zorroko Zerbitzu Publikoa

Antolakuntza eta zerbitzuak

Zerbitzuaren izena

Miaketa eta Ikerketa Psikologikorako MIPZ Programa

Titulartasuna

Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila

Zerbitzu-mota

Zerbitzu publikoa

Zerbitzuaren izena

Gizarte eta hezkuntzaren arloan esku hartzeko programa indarkeriaren biktimak diren emakumeekin eta pisuen kudeaketa materiala

Titulartasuna Bilboko Udala. Emakume eta Garapenerako Lankidetzaren Saila.

Zerbitzu-mota Zerbitzu publikoa

Zerbitzuaren izena

Nerabe eta familiei aholkatzeko udal-zerbitzua.

Titulartasuna Galdakaoko Udala. Emakume eta Droga Mendekotasun Saila.

Zerbitzu-mota

Zerbitzu publikoa

MIPZ, Miaketa eta Ikerketa Psikologikorako Zerbitzua
Jose Ramón Elizondo

Nerabe eta Familiei Aholkatzeko Galdakaoko udal-zerbitzua
Olivia Arostegi

SATEVI, Genero Indarkeriaren Biktimak diren Emakumeen Laguntza Psikologikoa Emateko Telefono Zerbitzua
Teresa Aguirre

Gizarte eta hezkuntzaren arloan esku hartzeko programa indarkeriaren biktimak diren emakumeekin eta pisuen kudeaketa materiala
Iratxe Amantegi

Zeuk esan, Nerabeei Orientatu eta Informatzeko telefono-zerbitzua
Kepa Torrealedea

2001

2005

2007

2008



Datu ekonomikoak

Jarduera-bolumena

7.506.240€

Gizarte eta hezkuntzaren arloko zerbitzuak

% 71,59

Zerbitzu psikosozialak

% 23,75

Aholkularitza eta prestakuntzako zerbitzuak

% 4,67

Kudeatutako jardueraren % 91 Gizarte-prestazio eta -zerbit-
zuen katalogoko zerbitzuei dagokie.

Balio erantsi garbia % 91,88



Balio erantsiaren analisia

Balantzea, Ustiapen Kontua eta Memoria dokumentu erabilgarriak dira kudeaketaren ebaluazioa egiteko, baina ez nahikoak Agintzariren gizarte-arrazoiaren betetze-maila bere osotasunean baloratzeko; horregatik, komenigarria da balio erantsiaren analisia egitea.

Balio Erantsiaren analisiaren eskeman azaltzen diren datuak ohiko ustiapen-kontutik datoz, baina beste irizpide batzuk kontuan hartuta konfiguratu dira eta beste modu batera antolatu dira, erakundeak duen misioaren kudeaketaren beste ikuspegi bat eskaini ahal izateko. Horrela, enpresak sortutako aberastasunaren sorrerari eta erkidegoko banaketari balio gehiago eman zaio.

ABERASTASUNAREN SORRERA ETA BANAKETA	2010eko balio erantsia	2010eko %	
A. JARDUERAREN DIRU-SARRERAK	7.506.240,05 €	% 100,00	+
B. KOSTUAK - KUDEAKETA ETA EKOIZPENEN KONTSUMOA	521.389,99 €	% 6,95	-
Kontsumoa gizarte-ekimeneko kooperatibei	34.156,00 €	% 6,55	
Kontsumoa kooperatibei	48.800,00 €	% 9,36	
Kontsumoa beste batzuei	438.433,99 €	% 84,09	
C. AZPIEGITURA-KOSTUAK	146.661,04 €	% 1,95	-
D. FINANTZA, ZERGA ETA GAINERAKOEN EMAITZAK	(94.239,16 €)	- % 1,26	-
BALIO ERANTSI GORDINA (A - B - C - D)	6.932.428,18 €	% 92,36	=
E. AMORTIZAZIOAK	65.639,52 €	% 0,87	-
BALIO ERANTSI GARBIA (BEGd - E)	6.866.788,66 €	% 91,48	=
F. APLIKATUTAKO FUNTSAK (erabilitakoaren eta berriz jarritakoaren arteko diferentzia)	29.760,51 €	% 0,40	+
BIRBANATU DAITEKEEN ABERASTASUNA (BEGb +/- F)	6.896.549,17 €	% 91,88	=
ABERASTASUNAREN BIRBANAKETA	6.740.133,27 €	% 89,79	-
Bazkide eta langileei (lan-aurrerakinak, soldatak)	3.642.695,34 €	% 48,50	
Sistema Publikoari (gizarte-kargak eta zergak)	2.212.278,52 €	% 39,80	
Ogasunari PFEZ	775.105,93 €	% 0,30	
Aseguruetan (profesionalen erantzukizun zibila)	33.629,55 €	% 0,40	
Hezkuntza eta prestakuntza	38.584,62 €	% 0,50	
Kapitalaren ordainketa bazkideen interesen arabera	37.839,31 €	% 0,50	
ATXIKITAKO MOZKINAK	156.415,90 €	% 2,08	=
Derrigorrezko Erreserba Funtsa	34.759,09 €		
Banaezina den eta gizarte-xedeko inbertsioetan erabiliko den funtsa	121.656,81 €		

2010eko ekitaldiko balio erantsia

Azken batean, gizarte-kudeaketaren logikari lehentasuna eman eta galera eta irabazien logika klasikoa bigarren mailan uztea da helburua.

Balio erantsiaren taulako edukari dagokionez, diru-sarrerek denboraldi horretan izan den ekoizpenaren balioa adierazten dute A kapituluak. Ekoizpen eta kontsumoko kostuak hornitzaileen izaeraren arabera (gizarte-ekimeneko kooperatibak, kooperatibak) eta irabazi-asmoak dituzten sektoreko enpresa hornitzaileen arabera multzokatu dira.

Taularen behealdean, diru-sarrerei kostuak kendu ondoren (B eta C kapituluak), jarduerari dagokion balioa ateratzen da, eta finantza-elementuak eta ezohiko elementuak kendu ostean (D kapitulua), balio erantsi gordina lortzen da. Era berean, balio erantsi garbia amortizazioetara xedaturiko zenbatekoak kenduta kalkulatzen da eta hori birbanatu daitekeen aberastasuna da.

Sortutako aberastasuna birbanatzeko orduan, gure erakundeak bereizi egiten du bazkide eta langileei, sistema publikoari laguntza gisa, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekonomiari eta, azkenik, erreferentziazko Erkidegoari (soberakin garbien zati bat berriz inbertituta) ematen zaiena.

Kooperatibaren 2010eko jarduerak izan dituen diru-sarreraren bilakaera aurreko urtekoa baino % 7 handiagoa izan da.

2010ean, lanaren bidez sortutako aberastasuna gure zerbitzuen salmentatik lortutako diru-sarreraren % 92,36koa izan da; bestalde, kontsumo eta ekoizpeneko kostuak % 6,95ekoak izan dira.

Gure erakundeak izan dituen kontsumo eta ekoizpene-ko kostu horiek pertsonei zerbitzuak eskaintzen dizkien enpresa orok izan ditzakeen kostuak dira, gehienak erositako zerbitzuei baitagozkie (argia, ura, alokairuak, garbiketa, garraioa, aholkularitza-zerbitzuak). Hornitzaileei egindako kostu osoaren % 16a kooperatibei zerbitzuak eta ondasunak erostetik datoz (% 6,55a gizarte-ekimeneko kooperatibei eta % 9,36a beste kooperatiba batzuei).

Balio erantsi garbia % 91,88koa da eta gure kooperatibaren barneko nahiz kanpoko agente desberdinen artean banatu daitekeen aberastasuna adierazten du; % 89a baino gehiago birbanatu egin da eta % 2 inguru enpresan bertan gorde da erakundearen beharrezko finantza-oreka bermatzeko.

Sortutako aberastasunaren gehiengoa hura sortzen gehien lagundu duten agenteen artean banatzen da; zentzu horretan, proiektuan parte hartzen duten pertsonen (bazkideak eta langileak) soldatak eta lan-aurrerakinak ordaintzen dira, eta haren balioa sortutako bitartekoen % 59ari dagokio gutxi gorabehera. Lana ordaintzeaz gain, sortutako aberastasunaren % 0,5 kooperatibaren arloko sustapen, prestakuntza eta hezkuntzarako ekintzetan inbertitu da, eta beste % 0,5a, ordea, bazkideen gizarte-kapitalaren interesak ordaintzeko erabili da.

Sortutako aberastasunaren % 29,3a gizarte-zerbitzuen sistema publikoari laguntzeko erabili da, gizarte-karga eta zergen bidez. Beste gizarte-estaldura pribatu batzuek bitartekoen % 0,4a xurgatu dute.

Balio erantsi garbiaren gainerako % 2a kooperatiban atxikitako aberastasunari dagokio, 2011ko ekitaldian hobekuntzen eta ekimenen finantziarioari aurre egiteko edo izan ditzakegun galerak estali ahal izateko erabiliko dena.

Gizarte Ekimeneko kooperatibetan, onura ekonomikoak ez dira bazkideen artean banat-

zen edo banaketa mugatua izaten da mutualitate-kontzeptu zabalago baten eraginez, emaitzak gizarte-helburuan inbertitzen baitira berriro. Hori da gure erakundeen beste ezaugarri berezietako bat. Gizarte-ekimeneko kooperatibetan sortutako onurak edo soberakinak hainbat kontzeptutan inbertitu daitezke, hala nola, zerbitzuen etengabeko hobekuntzan eta kalitatean, bazkide eta langileen prestakuntzan, gizarte-ikerketan eta kooperatiben arteko lankidetzaren sustapenean, gizarte-ekintza propioaren sustapen eta finantziazioan eta erkidegoaren mesedetan, edo erakundearen beharrezko finantza-egonkortasuna bermatzeko.

2009an, adibidez, atxikitako onuren kudeaketatik (289.260,55 €) soberakin garbien % 70a borondatezko funts banaezin batera xedatzea erabaki zen 2010eko ekainaren 5eko Batzar Nagusian; horrela, zenbateko hori erabilgarri geratuko zen gerta litezkeen galerei aurre egiteko eta gizarte-xedean inbertitzeko, kooperatibak eskainitako zerbitzuak hobetzeko eta gizarte eta enpresaren arloko azterketak eta ikerketak egiteko, hain zuzen ere. 2010eko ekitaldian, kooperatibak ekintzen sailkapen

honen arabera planifikatutako interes kolektiboko proiektu eta ekintzen ehuneko handi bat gauzatu ahal izan du:

I: GIZARTE-XEDEA ETA JARDUERA:

- Titulartasun propioko gizarte-ekintzako proiektu berriak diseinatu, ikertu, gidatu eta gauzatu ahal izateko inbertsioa.
- Gaur egungo zerbitzuak osatuko dituzten ekintza pilotuen finantziazio osagarria administrazio publikoarekin lankidetzan.
- Erkidegoaren mesedetan, norbere nahiz kanpoko ekintzak sustatu eta finantzatzea.

II: ZEHARKAKO PROIEKTUAK

- Zeharkako ekintzak, interkooperazioa eta, oro har, beste barne-ekintza batzuk finantzatzea.

III: GARAPEN KOOPERATIBOA


- Heziketa eta kooperatiba-sustapena sustatzeko ekintzen finantziazioa.

2010ean honako ekintza eta proiektu hauek gauzatu ahal izan dira aurreko ekitaldian sortu edo emandako funtsekin:

Lehen haurtzaroari erkidegoaren laguntza eta kontziliazioa eskaintzeko Haur Etxeen proiektu pilotua.
16-18 urteko gazteak gizarteratzeko proiektua, Activa Sarea ekimenaren bitartez eta Gizarte Ekimeneko Emaús Bilbao Sozietate Kooperatiboaren laguntzarekin.
Adoptiaren on line aholkularitza-proiektua.
Harrera eta adopzioaren inguruko argitalpen-proiektuak.
Euskara Plana.
Berdintasun Plana.
Zuhaitz Proiektua.
"Gosari kooperatiboak" jardunaldia.
Sozietateen inguruko prestakuntza.

Jarduera-bolumenaren bilakaera

Kooperatibaren jarduera-bolumenak hazkunde garrantzitsua izan du azken urteetan, 2010ean 7.506.240,05 € lortu baitira. 2009ko ekitaldian baino 493.279,90 € gehiago, hau da, hazkundea % 7koa izan da.



Jarduera-eremua

Kooperatibaren jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen da batik bat, herri-mailan udaletxeekin, probintzietan Foru Aldundiekin eta autonomia-mailan Eusko Jaurlaritzarekin eta beste Estatuko Gobernu batzuekin.


Udal-esparruan, garatutako jarduera-bolumena 5.733.181,05 €koa da, hau da, jarduera osoaren % 76a; probintzietan dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduera-bolumena 1.260.090 €koa izan da, % 17a alegia. Bestalde, lurraldez gaindiko zerbitzuetan garatutako jarduera-bolumena zenbateko osoaren % 7a izan da.

Gizarte Ekimeneko Agintzari Kooperatibaren jarduera gehienak Administrazio Publikoaren izenean eta ordezkari garatzen dira; 2010ean, gauzatutako jardueren % 98a Gizarte Zerbitzu publikoen esparruan garatu da eta horietatik % 91 Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean txertaturik dauden Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan daude.

Bezera pribatuekin gauzatutako jardueren bolumen osoaren % 2a osatzen dute eta horien artean hainbat jarduera aurkitu ditzakegu, batik bat aholkularitza eta arreta psikologikoa pertsona fisiko eta familiei eta kooperatiba eta gizarte-sareko erakundeei, besteak beste.


Kooperatibak 2010ean eskaini dituen jardueren artean, gizarte eta hezkuntzaren arloko, arreta psikosozialeko

eta aholkularitza eta prestakuntzarako zerbitzuak ditugu. 2010eko ekitaldian, gizarte eta hezkuntzaren arloko jarduerarekin 5.374.073,76 € lortu dira, hau da, jarduera osoaren % 71,59a; zerbitzu psikosozialen bidez 1.781.491,26 € lortu dira (% 23,75) eta aholkularitza eta prestakuntzarako zerbitzuen bidez 350.675,03 € (% 4,67). Aurreko urteko ekitaldiari dagokionez, prestazio psikosozialak % 3 baino gehiago igo dira, gure aurreikuspen estrategikoetan espero genuen oreka eta dibertsifikazioa gaindituz.



- Gizarte eta hezkuntzaren arloa
- Arlo psikosoziala
- Aholkularitza eta prestakuntza

2010eko I+G+b-aren eta berrikuntzaren kudeaketari dagokionez, kooperatibak bere baliabideen % 3,4a xedatu du esparru horretara, guztira 5,4 ikertzaile-lanaldi sortuz (7 profesional, horietatik 5 emakumeak), hau da, 236.970 €ko zuzkidura. 2010eko negozio-zifra osoaren % 5a 2008-2010 urteetan txertatutako zerbitzuetan berrikuntzak egiteko erabili da, horiek berrikuntza bat izan baitziren kooperatibak lan egiten duen merkatuan.



Jarduera-bolumena esparru bakoitzeko

Jarduera-bolumena zerbitzu-mota bakoitzeko

Urtea	Jarduera-bolumena	Gizarte-ekimeneko zerbitzuak	Zorro publikoko zerbitzuak
2006	4.535.911,59 €	214.266,00 €	4.321.645,59 €
2007	5.680.710,65 €	304.943,00 €	5.375.767,65 €
2008	6.368.797,11 €	520.626,00 €	5.848.171,11 €
2009	7.012.960,15 €	562.412,00 €	6.450.548,15 €
2010	7.506.240,05 €	668.572,00 €	6.837.668,05 €



Agintzariko pertsonak

201 profesional,

% 82 emakumeak

Kooperatibaren 150 bazkide:

% **75**eko kooperatibizatze-maila

6 lanaldi garbi berri



Gizarte-hezkuntzako **118** profesional eta
psikologiako **31**

% **88**a lanaldi osoko profesionalak.



Taldearen osaera eta ezaugarriak

2010ean, Agintzari 201 pertsonak osatzen zuten, horietatik 150 bazkideak eta 51 langileak. Urte horretan 6 lanaldi garbi sortu dira. Guztira, % 82 emakumeak dira. Era berean, nahiko talde gaztea garela esan genezake, % 66ak 39 urte baino gutxiago baititu.




Prestakuntzari dagokionez, **% 51 diplomatuak dira eta % 46 lizentziatuak**. Gehiengoaren okupazio-profilari dagokionez, % 53k gizarte-hezkuntzan lan egiten dute (118 pertsona), % 18k taldea/zerbitzua koordinatzen eta % 14k (31 pertsona) psikologiaren eta arreta psikosozialaren esparruan.



Taldearen osaera eta ezaugarriak


2010ean **Agintzari** lan egin duten pertsonen lanbide-kategoriari dagokienez, eta batez ere lidergo partekatuko kudeaketa-estrategiari dagokienez, langileen % 24k kudeaketa-erantzukizunen bat izan dute zuzendaritzaren edo koordinazioaren esparruan. Kudeaketa-egitura 9 zuzendarik osatzen dute (6 gizon eta 3 emakume), erantzukizunak dituzten erdi-mailako teknikariak 29 dira (27 emakume eta 2 gizon) eta erantzukizunak dituzten goi-mailako teknikariak, ordea, 16 (13 emakume eta 3 gizon).

Lanbide-kategoriak	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
Zuzendaritzako kideak (zuzendaria, zuzendariordea...)	9	3	6
Goi-mailako teknikaria + erantzukizunak	16	13	3
Goi-mailako teknikaria	29	22	7
Erdi-mailako teknikaria + erantzukizunak	29	27	2
Erdi-mailako teknikaria	136	113	23
Beste kategoriatzat batzuk (laguntzailea, monitorea...)	6	6	0
Guztira	225		



Gizarte-hezitzaileak
 Psikologoak
 Zuzendariak
 Administrazioako teknikariak
 Gerentzia
 Zerbitzuaren koordinatzaileak
 Administrazioako langileak
 Beste lanbide batzuk
 Gizarte-langileak
 Prestatzaileak

Kudeatutako enpleguaren ezaugarriari dagokienez, kooperatiba osatzen duten pertsonen % 88k lanaldi osoko kontratuak dituzte eta % 68k hiru urtetik gorako lan-harremanak dituzte kooperatibarekin.



Antzinasunik gabe
 Bi hirurteko
 Hiru hirurteko
 Lau hirurteko
 Bost hirurteko edo gehiago

Prestakuntza

Agintzarik bere kudeaketaren oinarrizko printzipioetako baten gisa identifikatzen du “kooperatibaren funtsezko gaitasunak, antolatzaileak nahiz indibidualak, modu proaktiboan sustatu eta txertatzea, betiere ahalik eta gaitasun profesionalik handiena bermatuz”.

Agintzariren 2010eko Prestakuntza Planaren bitartez -2010eko martxotik 2011ko martxora-, 22 prestakuntza-ekintza sustatu dira; horren emaitza gisa,

4.741 prestakuntza-ordu hartu ditugu, horietatik % 45 Agintzariko irakasleen bitartez eta % 55 kanpoko lankidetzen bitartez. Gai eta edukiei dagokionez, % 90a prestakuntza teknikoari buruzkoa da eta % 10a berdintasun eta laneko arriskuen zeharkako ildoei eta informatikako prestakuntza espezifikoari buruzkoa. 2010ean, prestakuntzara xedaturiko kanpoko zerbitzuen eta ekoizpenaren kostua 26.791,82 €koa izan da.

2010eko prestakuntza


Parte-hartzaileak (pertsanak ikasturte bakoitzeko)	225
Orduak (hartutakoak)	4.741
Kostua	18.140 €
Eduki-mota (ordutan)	
Informatika	80
Lanean teknika hobetzea	4.297
Laneko arriskuak	135
Berdintasuna	229
Barruan/Kanpoan (ordutan)	
Barruan	2.110
Kanpoan	2.391

GUZTIRA

Pertsonek aukeraketa

2010ean profesionalen aukeraketarako 37 prozesu kudeatu dira; prozesu horien % 30etan lanaldi osoko jardunaldi bat eskaintzen zen eta gainerako % 70etan, ordea, erdi-mailako teknikariaren kategoriarako profil bat. Aukeraketa-prozesu horien kudeaketa kooperatibaren barruan garatu da 18 prozesuren kasuan eta kooperatibatik kanpo 19ren kasuan.

Agintzariko pertsonak



- Antzinasunik gabe
- Bi hirurteko
- Hiru hirurteko
- Lau hirurtekotrieniak


Familia eta lana bateragarri egitea


Agintzari osatzen duten pertsonen % 37k ondorengo senitartekoekiko erantzukizunak dituzte, 70 emakumek eta 15 gizonen kasuan. Ekitaldi honetan, 18 amatasun-aitatasun eta/edo harrera-adopzio izan ditugu 15 emakume eta 2 gizonen kasuan.

2010ean, 27 lanaldi-laburtze izan ditugu kontziliazioa dela eta, horietatik 26 emakumeak eta gizon 1. Ez da lanaldi-murrizketarik edo lan-utzialdirik eskatu kontziliazioaren esparruan aurreikusten diren beste senitarteko batzuk zaintzeko.

Laneko osasuna

2010ean, kooperatiban lan egindako ordu guztietatik (298.666 ordu) 26.116 baja-orduak izan dira, hau da, % 8,74a, eta horietatik % 4 amatasun-bajei dagozkie.





Erakunde eta agenteak

Presentzia Bizkaiko **21**
gizarte-zerbitzutan.

Lankidetza lurraldeko eta Euskal Autonomia
Erkidegoko **erakunde publikoekin.**

Erakundeen partaidetza
sektoreko elkarre-mugimendu eta sareetan.



Erakunde eta agenteak

Erakunde eta agenteak

Kapitulu honetan **Agintzari**ren egituran parte hartzen duten entitate, instituzio, erakunde eta agente guztiak aipatu nahi ditugu. Gure bezeroak diren erakunde publikoak, prestakuntza-zentroak, familia-elkarteak, ikastetxeak, ikerketa-zentroak. Baita oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dizkiguten erakunde hornitzaileak ere, **Agintzari**k parte hartzen duen edo kide den erakundeak ahaztu gabe. Azken batean, gure harremanen mundua. Lankidetzarako, zerbitzuak eskaintzeko, ezaguerak partekatzeko, eragina izateko, gizarte-partaidetzarako, komunikaziorako eta abarretarako harremanak; hau da, gizarte-kooperatiba garen neurrian gure misioa garatzen laguntzen diguten agenteak.



Erakunde eta agenteak

Gizarte Zerbitzuen udal-esparruko erakunde publikoak

Agintzarik Bizkaiko lurralde historikoko 21 toki-erakundetako gizarte-zerbitzuekin lan egin du.

- Alonsotegiko Udala
- Barakaldoko Udala
- Basauriko Udala
- Bermeoko Udala
- Berrizko Udala
- Bilboko Udala. Gizarte Ekintza Saila; Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarra Saila
- Busturialdeko Mankomunitatea
- Durangoko Merindadearen Mankomunitatea
- Enkarterriko Mankomunitatea
- Ermuako Udala
- Etxebarriko Udala
- Galdakaoko Udala
- Getxoko Udala
- Lea-Artibaiko Udala
- Lea-Ibarrako Udala
- Leioako Udala
- Muskizko Udala
- Urduñako Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko Udala
- Ugao-Miraballesko Udala
- Zierbenako Udala



Erakunde eta agenteak

Lurraldeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak

2010ean, Agintzarik hainbat proiektu egin ditu EAEko erakunde publiko hauekin batera.

- Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila, IFAS Institutua.
- Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
- Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila.
- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

EAEko tokiko esparruko beste erakunde publiko batzuk

- Bilbo Lan Ekintza
- Irungo Berritzegunea

Beste autonomia erkidego batzuetako gizarte-zerbitzuetako erakunde publikoak

Era berean, eta bereziki Harrera eta Adopzio lldoak eskaintzen dituen proiektu eta zerbitzuen bitartez, 2010ean Agintzari honako hauekin jarri da harremanetan, besteak beste:

- Valentziako Generalitat
- Galiziako Xunta
- Gaztela-Mantxako Junta
- CREFES, Gaztela eta Leongo Juntako Gizarte Ikerketa eta Prestakuntzarako Eskualdeko Zentroa.
- Adolfo Posada Administrazio Publikoko Asturiasko Institutua



Erakunde eta agenteak

Familien elkarteak eta erkidegoko erakundeak

Gure erakundearentzat funtsezko agenteak dira, halaber, familien elkarteak eta erkidegoko erakundeak, horiekin hainbat ekimen gauzatu baititugu. Erakunde horietako askok harreraren eta adopzioaren esparruan lan egiten dute.

- ACOFAM
- Adopta2, Valentziako Erkidegoko Adopzio Familien Elkarte
- AFAAR Errioxa
- AFADA Zaragoza
- AFADENA Nafarroa
- AFAIC
- AFAMAC Hilo Rojo, Málaga
- AFAMUNDI Kantabria
- ANDENI Extremadura
- ANICHI
- ARFACYL
- Beroa elkarte
- Chernobil Elkarte
- ASTURADOP
- Chernobileko Umeak
- MANAIA
- PANDA Nafarroa
- Ume Alaia Bizkaia
- Ume Alaia Gipuzkoa

Era berean, hezkuntza-komunitatea osatzen duten gurasoen erakundeak, ikastetxe asko eta erkidegoaren garapenaren alde egunero elkarlanean aritu garen tokiko beste hainbat erakunde aipatu nahi genituzke.



Erakunde eta agenteak

Gizarte-erakundeak eta esku-hartze komunitarioko erakundeak

Izaera desberdineko proiektuak izanik ere (heziketa, ikerketa, aholkularitza...), 2010ean honako hauekin gauzatu ditu proiektuak Agintzarik:

- Norbera Izan Fundazioa Donostia
- Maria José Jové Fundazioa, Coruña
- Extremadurako Gurutze Gorria
- Nuevo Futuro Nafarroa
- Aldeas Infantiles
- Intress Bartzelona
- Ortzadar elkarte
- Bizkaiko Psikologo Elkargo Ofiziala

Unibertsitateak eta Formazio eta Ikerkuntza Zentroak

Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren esparru espezifikoan, honako hauek sustatutako proiektuetan parte hartu dugu:

- EHE, Elizbarrutiko Hezitzaileen Eskola
- ENFTP, Euskadi eta Nafarroako Familia Terapia Eskola
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Zaragozako Unibertsitatea
- Ramón Llull Unibertsitatearen Blanquema Fundazioa
- Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Erakunde eta agenteak

Partaidetza elkarte-mugimendu eta sareetan.

Agintzarik gizarte-partaidetzaren esparruko mugimendu sektorialetan eta mugimendu kolektiboetan duen partaidetza ondorengo erakunde kolektibo hauetan duen presentzian islatzen da:

Era berean, Agintzarik Oinarri eta Elkargi Elkarren Bermerako Sozietateetan parte hartzen du.



Erakunde eta agenteak

Erakundeen partaidetza

Gainera, kooperatiba gizarte-ordezkaria da erakundeen partaidetzarako organo hauetan:

- Eusko Jurlaritzaren Haur Batzordea.
- Eusko Jurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.
- Aldundiko Haur Batzordea.
- Bilboko Udaleko Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.
- Bilboko Udaleko Haur Batzordea.

Erakunde eta agenteak

Hornitzaile kooperatiboak

Agintzariren funtsezko hornitzaileen artean, gizarte-ekonomiaren esparrua gurekin partekatzen duten eta kooperatiben euskal mugimenduan laguntzen duten horiek aipatu nahi genituzke. Garbitasun, laguntza informatiko, aholkularitza eta irudi eta komunikazioaren zerbitzu nagusiak eskaintzen dizkiguten funtsezko hornitzaileak dira. Aipamen berezia egin nahi diogu Elkar-Proteo Gizarteratze Kooperatibari, Agintzari haren kide sustatzailea delako eta gaur egun Gizarte Ekimeneko Emaús Bilbao Sozietate Kooperatiboaren sarean parte hartzen duelako, hain zuzen.



Erakunde eta agenteak

Azkenik, atal hau amaitzeko, 2010eko maiatzaren 31n antolatutako **“Gosari kooperatiboetan”** -“Misioa, ikuspegia eta baloreak etorkizuneko jokabide antolatzaile eta estrategiko bihurtzea”- parte hartu zuten erakundeen eta horien ordezkarien lankidetzak aipatu nahi dugu. Berezi eskertu nahi diegu jardunaldi horretan parte hartzeagatik, Bartzelonako Xarxa Gedi-ko gure lagunei, Ikastolen Elkarteko Imanol Igeregiri, FEVASeko Pedro Fernandezi -2010ean hil zen, beti izango dugu gogoan- eta Iris Network-eko Flaviano Zandonairi, gizarte-enpresari buruzko Ikerkuntza Institutua.

